

LANTARÓN

6169

Behin betiko onarpena ematea 2014ko zerga ordenantzen aldaketari.

Udal honek, 2013ko urriaren 9an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga eta zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak -C) epigrafea: kirol pistak erabiltzea- arautzen dituzten zerga ordenantzen aldaketari. Erabaki horren aurka ez denez erreklamaziorik aurkeztu horretarako ezarritako epean, behin betiko onartutzat jotzen dira indarreko araudiarekin bat etorriz, eta osorik argitaratzen da ordenantza hauen testua, zeinak 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko baitira indarrean, eta hala egongo dira harik eta aldatu edo baliogabetzen diren arte.

ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**I.- XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Tributuarien Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA GAIA**3. artikulua.**

Zerga gaia da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza baimena, baimen hori lortu edo ez, edo erantzukizun aitortpena, edo alde zuzen jakinaraztea, betiere baimena ematea edo kontrol jarduera egitea udal honi badagokio.

4. artikulua.

Azalpen modura, ondokoak daude zergapean:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dauden mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
3. Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalaziori eragiten dioten eraberritze edo aldaketak obrak.
4. Lehendik dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak.
5. Eraikinen barruko taxutzea aldatzeko obrak, beraien erabilera gorabehera.
6. Lurzoruaren Legeko 58. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen den bezala behin-behinekoak diren obrak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
8. Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.
9. Eraikuntzen eraspenna, berehalako aurraren adierazpena egin zaienetan izan ezik.
10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesioetarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

LANTARÓN

6169

Aprobación definitiva de la modificación de las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2014.

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 9 de octubre de 2013, por el que se aprueba con carácter provisional la modificación de las Ordenanzas Fiscales reguladoras del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras y de las Tasas por prestación de Servicios Públicos y realización de Actividades Administrativas. Epígrafe C). Utilización pistas deportivas, y no habiéndose presentado reclamaciones, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente quedan definitivamente aprobadas, publicándose íntegramente el texto de estas Ordenanzas, que entrarán en vigor el día 1 de enero de 2014, y seguirán vigentes hasta que se apruebe su modificación o derogación.

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS**I. DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE**Artículo 3.**

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1. Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.
2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.
3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.
6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.
7. Las obras de instalación de servicios públicos.
8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavaciones y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.
9. La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.
10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obra edo hirigintza baimena lortu beharra dutenak.

5. artikulua.

Higiezinaren gainean egindako eraikuntza, obra eta instalazioei ez zaie zerga hau ezarriko, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III. SALBUESPENAK

6. artikulua.

Zergatik salbuetsita daude:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin-uretako saneamenduak eraikitzeke badira, organismo autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan zein mantentzeko izan.

b) Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

c) Ureztatzeko sistema jartzeko egiten diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatzeko Planaren barruan badaude. Salbuespen hau ureztatzeko sistema ezartzeko zein artatzeko eraikuntza, instalazio eta obrei aplikatuko zaie.

d) Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, bere 4. artikuluko 1. paragrafoaren k) letran adierazitako salbuespena aplikatu behar zaien ondasunetan (uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultura ondarearenak, bere 2. artikuluko 2. paragrafoaren a) letran adierazitako monumentuak diren ondasunak) egiten den edozein eraikuntza, instalazio edo obra.

e) Lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten diren obrak edo eraikuntza lanak (otsailaren 26ko 3/2011 Foru Araua).

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

7. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta erakundeak, baldin eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe badira; berdin dio obra egiten den ondasun higiezinaren jabe diren ala ez.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen dituenak.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordezkotako subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak, erantzukizun aitortzenak edo aldeaz aurreko jakinarazpenak aurkeztzen dituztenak, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua.

1. Zergaren oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.

Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezietako berezko beste antzeko zergak; eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasak, prezio publikoak eta ondare prestazioak, publikoak eta tokian tokikoak badira; ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

11. Cualesquiera obras, construcciones, o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanística.

Artículo 5.

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

III. EXENCIONES

Artículo 6.

Estarán exentas del impuesto:

a) La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, la Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación

b) La realización de cualquier construcción, instalación y obra de la que sean dueños los Concejos del Territorio Histórico de Álava cuyo destino sea el servicio o uso público.

c) La realización de cualquier construcción, instalación y obra de implantación de regadío, siempre que se encuentren dentro del Plan de Regadíos aprobado por la Diputación Foral de Álava. Esta exención se extiende tanto a las construcciones, instalaciones u obras que originen su implantación, como a las de conservación.

d) La realización de cualquier construcción, instalación u obra efectuada en los bienes a los que resulte de aplicación la exención contenida en la letra k) del apartado 1 del artículo 4 de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (bienes que tengan la consideración de monumentos a que se refiere la letra a) del apartado 2, del artículo 2, de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

e) Las obras o construcciones que supongan la eliminación de barreras arquitectónicas de edificios o construcciones preexistentes (Norma Foral 3/2001, de 26 de febrero).

IV. SUJETOS PASIVOS

Artículo 7.

1. Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas, personas jurídicas y entidades del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

A los efectos previstos en el párrafo anterior tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

2. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 8.

1. La base imponible del Impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás Impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

VI. ZERGA KUOTA

9. artikulua.

Zerga honen kuota ateratzen da zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz.

VII. SORTZAPENA

10. artikulua.

Eraikuntza, instalazioa eta obra hasten den momentuan sortuko da zerga, dagokion obraren baimena lortu ez bada ere.

VIII. KUDEAKETA

11. artikulua.

Eman beharreko baimena ematen denean edo erantzukizun aitortpena edo alde zurreko jakinarazpena aurkeztu denean, edota oraindik baimena eskatu, eman edo ukatu ez bada edo aitortpen eta jakinarazpenak aurkeztu ez badira, eraikuntza, instalazioa edo obra egiten hasten bada, behin-behineko likidazioa egingo da kontura, eta zerga oinarria zehaztuko da interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere dagokion elkargok behar bezala ikus-onesita badago, hori nahitaez egin behar denean; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

12. artikulua.

Behin baimena emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

13. artikulua.

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu erreala eta benetakoa kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu, edo, hala badagokio, itzuli egingo dio.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obraren behin-behineko onarpena eman eta hurrengo hilean, horren aitortpena aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultati-boaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onesia, ahal denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultati-boak, industria onura eta hortik sortutako gainerako eskubideak barne.

14. artikulua.

Zergaren likidaziorako ondorio berak edukiko dituzte administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren baimenek eta berariaz ematen diren baimenek.

15. artikulua.

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

16. artikulua.

Baimen baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

17. artikulua.

Baimena iraungitakoan, egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du udalak, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak baimena ematen badio.

18. artikulua.

Hobari hauek ezarri dira:

a) Ehuneko 95eko hobaria egongo da zerga kuotan, gizarte, kultura, historia eta arte inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaratura dauden eraikuntza, instalazio eta obrentzat, edo deklarazio hori justifikatzen duen enplegu sustapene-koentzat.

b) Ehuneko 20ko hobaria egongo da kuotan, autokontsumorako eguzki indarraren aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak

VI. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 9.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

VII. DEVENGO

Artículo 10.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

VIII. GESTIÓN

Artículo 11.

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, o cuando no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún aquella o presentado éstas, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

Artículo 12.

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 13.

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

Artículo 14.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

Artículo 15.

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

Artículo 16.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

Artículo 17.

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

Artículo 18.

Se establecen las siguientes bonificaciones:

a) Una bonificación del 95 por ciento de la cuota del impuesto a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración.

b) Una bonificación del 20 por ciento de la cuota a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen

jartzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrentzat. Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edukitzea.

Aurreko a) idatz zatian aipatutako hobaria aplikatu baldin bada, idatz zati honetako hobaria aurreko hori aplikatu ondoren aplikatuko da.

c) Ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie babes ofizialeko etxebizitzetara eta prezio tasatutako etxebizitzetara lotutako eraikuntza, instalazio eta obrei.

Idatz zati honetan xedatutako hobaria aurreko idatz zatietako hobariak aplikatuta ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

d) Ehuneko 90eko hobaria egongo da ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan.

Idatz zati honetan xedatutako hobaria aurreko idatz zatietako hobariak aplikatuta ateratzen den kuotari ezarriko zaio.

ERANSKINA

TARIFA

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Karga tasa	%
Oin berriko obrak	3,30%	
Gainerako eraikuntza, instalazio eta obrak	2,05%	

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRATZIO JARDUERAK EGITEAGATIK KOBRATU BEHARREKO TASAK -C) EPIGRAFA: KIROL PISTAK ERABILTZE- ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

5.- Tenis eta padel pistak erabiltzeko tarifak:

5.1. Padel: igerilekuetako bazkide diren eskatzaileek, padel pista erabiltzeagatik, lau (4) euro orduko ordainduko dituzte. Zenbateko horri beste bi (2) euro orduko gehituko zaizkio, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztuko dute, padel pista erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, padel pista erabili aurretik, zortzi (8) euro orduko ordainduko dituzte. Zenbateko horri beste hiru (3) euro orduko gehituko zaizkio, argia piztu behar izanez gero.

5.2. Tenis: igerilekuetako bazkide diren eskatzaileek, tenis pista erabiltzeagatik, bi (2) euro orduko ordainduko dituzte. Zenbateko horri beste bi (2) euro orduko gehituko zaizkio, argia piztu behar izanez gero. Erabiltzaile horiek bazkide txartela aurkeztuko dute, tenis pista erabili aurretik.

Gainerako erabiltzaileek, tenis pista erabili aurretik, lau (4) euro orduko ordainduko dituzte. Zenbateko horri beste hiru (3) euro orduko gehituko zaizkio, argia piztu behar izanez gero.

Pista erabili eta gero, giltza itzuliko zaio tabernako esleipendunari, eta orduan itzuliko zaizkio berme gisa utzitako bost euroak eskatzaileari.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Komunioi, 2013ko abenduaren 4a.- Alkatea, JAVIER URIARTE JAIRO.

LEGUTIO

6153

Dirulaguntza deialdia, Arabako bolo modalitatea 2014. urterako sustatzen duten Legutioko udalerriko administrazio batzarrentzat.

Alkate-lehendakariaren 131201B Dekretuaren bidez, deialdia egitea erabaki da dirulaguntzak emateko Arabako bolo modalitatea

sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar para autoconsumo. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.

La bonificación prevista en esta letra se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, la bonificación a que se refiere la letra a) anterior.

c) Una bonificación del 50 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras referentes a las viviendas de protección oficial, así como a las viviendas de precio tasado.

La bonificación prevista en esta letra se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras anteriores.

d) Una bonificación del 90 por ciento a favor de las construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.

La bonificación prevista en esta letra se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras anteriores.

ANEXO

TARIFA

Clase de construcción, instalación, u obra	Tipo de gravamen	%
De nueva planta		3,30%
Resto de construcciones, instalaciones y obras		2,05%

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICO Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS. EPÍGRAFE C) UTILIZACIÓN PISTAS DEPORTIVAS

5.- Tarifas para utilización de las pistas de tenis y de padel:

5.1. Padel: Los usuarios que sean socios de las piscinas, deberán abonar por la utilización de la pista de padel, y previamente a su utilización con exhibición del carnet de abonado, la cantidad de cuatro (4) euros /hora, a la que se añadirá la cantidad de dos (2) euros/hora si resultase necesario la iluminación.

El resto de usuarios deberán abonar previamente a la utilización de la pista de padel, la cantidad de ocho (8) euros/hora, a la que se añadirá la cantidad de tres (3) euros/hora si resultase necesario la iluminación.

5.2. Tenis: Los usuarios que sean socios de las piscinas, deberán abonar por la utilización de la pista de tenis, y previamente a su utilización con exhibición del carnet de abonado, la cantidad de dos (2) euros /hora, a la que se añadirá la cantidad de dos (2) euros/hora si resultase necesario la iluminación.

El resto de usuarios deberán abonar previamente a la utilización de la pista de tenis, la cantidad de cuatro (4) euros/hora, a la que se añadirá la cantidad de tres (3) euros/hora si resultase necesario la iluminación.

En todos los casos, al finalizar la hora de utilización de la pista se devolverá la llave correspondiente al adjudicatario del bar, momento en el que se devolverá los cinco euros depositados en garantía.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.

En Comunió, a 4 de diciembre de 2013.- El alcalde, JAVIER URIARTE JAIRO.

LEGUTIO

6153

Convocatoria de subvenciones a las juntas administrativas del municipio de Legutio que promuevan la modalidad del bolo alavés para el año 2014.

Mediante Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 131201B, se ha acordado efectuar la convocatoria para la concesión de subven-